Legislación consolidada
BOE, n.º 236, de 02/10/2015
Entrada en vigor: 02/10/2016
Actualización publicada el 6/11/2024

Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

FELIPE VI

REY DE ESPAÑA

A todos los que la presente vieren y entendieren.
Sabed:
Que las Cortes Generales han aprobado y Yo vengo en sancionar la siguiente ley:

I

La esfera jurídica de derechos de los ciudadanos frente a la actuación de las Administraciones Públicas se encuentra protegida a través de una serie de instrumentos tanto de carácter reactivo, entre los que destaca el sistema de recursos administrativos o el control realizado por jueces y tribunales, como preventivo, a través del procedimiento administrativo, que es la expresión clara de que la Administración Pública actúa con sometimiento pleno a la Ley y al Derecho, como reza el artículo 103 de la Constitución.

El informe elaborado por la Comisión para la Reforma de las Administraciones Públicas en junio de 2013 parte del convencimiento de que una economía competitiva exige unas Administraciones Públicas eficientes, transparentes y ágiles.

En esta misma línea, el Programa nacional de reformas de España para 2014 recoge expresamente la aprobación de nuevas leyes administrativas como una de las medidas a impulsar para racionalizar la actuación de las instituciones y entidades del poder ejecutivo, mejorar la eficiencia en el uso de los recursos públicos y aumentar su productividad.

Los defectos que tradicionalmente se han venido atribuyendo a las Administraciones españolas obedecen a varias causas, pero el ordenamiento vigente no es ajeno a ellas, puesto que el marco normativo en el que se ha desenvuelto la actuación pública ha propiciado la aparición de duplicidades e ineficiencias, con procedimientos administrativos demasiado complejos que, en

Legeria kontsolidatua
BOE, 236. zk., 2015/10/02
Indarrean jartzea: 2016/10/02
2024/11/06an argitaratutako eguneratzea

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.

FELIPE VI.a

ESPAINIAKO ERREGEA

Honako hau ikusten eta ulertzen duten guztiei.
Jakizue:
Gorte Nagusiek lege hau onetsi dutela eta Nik berretsi egiten dudala.

I

Herritarrek administrazio publikoen jarduketaren aurrean dituzten eskubideen esparru juridikoa babesten duten tresnetan, batzuk erreaktiboak dira, eta haien artean aipagarrienak administrazioarekiko errekurtsoen sistema eta epaile eta auzitegien kontrol-lana; beste batzuk, berriz, prebentiboak dira, administrazio-prozedura erkidearen bitartezkoak, zeinak argi erakusten baitu Administrazio Publikoak osotara legearen eta zuzenbidearen mende jarduten duela, Konstituzioaren 103. artikuluak dioen bezala.

Administrazio Publikoak Erreformatzeko Batzordeak 2013ko ekainean prestatutako txostena uste sendo batetik abiatzen da: ekonomia lehiakor baterako, beharrezkoa da administrazio publikoak efizienteak, gardenak eta bizkorrak izatea.

Ildo berean, 2014an Espainian egiteko erreformen Programa nazionalak espresuki jasoa du administrazio-lege berriak egin beharra, botere betearazleko erakunde eta entitateen jarduketa arrazionalizatzeko, baliabide publikoak efizientzia handiagoz erabiltzeko eta haien produktibitatea handitzeko bultzatu beharreko neurrien artean.

Espainiako administrazioei tradizioz leporatu izan zaizkien akatsak arrazoi bati baino gehiagori zor zaizkio, baina indarrean den ordenamenduak ere badu zerikusirik, zeren eta jarduketa publikoaren araugintza-esparruak bikoiztasunak eta efizientziarik ezak agertzea eragin baitu, administrazio-prozedura sobera konplexuak direla

ocasiones, han generado problemas de inseguridad jurídica.

Para superar estas deficiencias es necesaria una reforma integral y estructural que permita ordenar y clarificar cómo se organizan y relacionan las Administraciones tanto externamente, con los ciudadanos y empresas, como internamente con el resto de Administraciones e instituciones del Estado.

En coherencia con este contexto, se propone una reforma del ordenamiento jurídico público articulada en dos ejes fundamentales: las relaciones «ad extra» y «ad intra» de las Administraciones Públicas.

Para ello se impulsan simultáneamente dos nuevas leyes que constituirán los pilares sobre los que se asentará el Derecho administrativo español: la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público.

Esta Ley constituye el primero de estos dos ejes, al establecer una regulación completa y sistemática de las relaciones «ad extra» entre las Administraciones y los administrados, tanto en lo referente al ejercicio de la potestad de autotutela y en cuya virtud se dictan actos administrativos que inciden directamente en la esfera jurídica de los interesados, como en lo relativo al ejercicio de la potestad reglamentaria y la iniciativa legislativa.

Queda así reunido en cuerpo legislativo único la regulación de las relaciones «ad extra» de las Administraciones con los ciudadanos como ley administrativa de referencia que se ha de complementar con todo lo previsto en la normativa presupuestaria respecto de las actuaciones de las Administraciones Públicas, destacando especialmente lo previsto en la Ley Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera; la Ley 47/2003, de 26 de noviembre, General Presupuestaria, y la Ley de Presupuestos Generales del Estado.

II

La Constitución recoge en su título IV, bajo la rúbrica «Del Gobierno y la Administración», los rasgos propios que diferencian al Gobierno de la Nación de la Administración, definiendo al primero como un órgano eminentemente político al que se reserva la función de gobernar, el ejercicio de la potestad reglamentaria y la dirección de la Administración y estableciendo la subordinación de ésta a la dirección de aquel.

tarteko, zeinek segurtasun juridikorik ezaren arazoak ere sortu baitituzte zenbaitetan.

Gabezia horiek gainditzeko, erreforma integral eta estruktural bat behar da, aukera emango duena ordenatzeko eta argitzeko nola antolatzen eta harremanetan jartzen diren administrazioak, bai kanpora begira, herritarrekin eta enpresekin, bai barrura begira, Estatuko gainerako administrazio eta erakundeekin.

Testuinguru horrekin koherente izanez, ordenamendu juridiko publikoaren erreforma bat proposatzen da, oinarrizko bi ardatzetan artikulatua: administrazio publikoen ad extra eta ad intra harremanak.

Horretarako, bi lege berri bultzatu dira aldi berean, Espainiako Administrazio Zuzenbidearen zutabe izatekoak: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea.

Lege hau da bi ardatz horietako bat, osoki eta sistematikoki arautzen baititu administrazioen eta administratuen arteko ad extra harremanak, bai autobabes-ahala baliatzeari dagokionez, haren indarrez ematen baitira interesdunen esparru juridikoan eragin zuzena duten administrazio-egintzak, bai erregelamenduak egiteko ahala eta legegintza-ekimena baliatzeari dagokionez.

Horrela, lege-gorputz bakarrean bildurik gelditzen da administrazioek herritarrekin ad extra dituzten harremanen erregulazioa, erreferentziazko administrazio-lege gisa, aurrekontu-araudian aurreikusten den guztiarekin osatzeko; bereziki aipatzekoa da Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan, Aurrekontuei buruzko azaroaren 26ko 47/2003 Lege Orokorrean, eta Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legean aurreikusitakoa.

II

Konstituzioak jasotzen du, IV. tituluan, «Gobernua eta Administrazioa» izenburupean, zer ezaugarrik bereizten dituzten nazioko Gobernua eta Administrazioa. Lehenengoa organo nagusiki politiko gisa definitzen du, zeinari gordetzen baitzaio gobernatzeko eginkizuna, erregelamenduak egiteko ahala baliatzea eta Administrazioa zuzentzea, eta bigarrena

Gobernuaren zuzendaritzaren mende dagoela ezartzen du.

En el mencionado título constitucional el artículo 103 establece los principios que deben regir la actuación de las Administraciones Públicas, entre los que destacan el de eficacia y el de legalidad, al imponer el sometimiento pleno de la actividad administrativa a la Ley y al Derecho.

Aipatutako konstituzio-tituluan, 103. artikuluak ezartzen du zer printzipiok gidatu behar duten administrazio publikoen jarduketa, haien artean nabarmentzen direla efikazia eta legezkotasuna, agintzen baitu administrazio-jarduketak erabat legearen eta zuzenbidearen mende egon behar duela.

La materialización de estos principios se produce en el procedimiento, constituido por una serie de cauces formales que han de garantizar el adecuado equilibrio entre la eficacia de la actuación administrativa y la imprescindible salvaguarda de los derechos de los ciudadanos y las empresas, que deben ejercerse en condiciones básicas de igualdad en cualquier parte del territorio, con independencia de la Administración con la que se relacionen sus titulares.

Printzipio horiek prozeduran gauzatzen dira. Prozedura, berez, bide formal batzuk dira, zeinek bermatu behar baitute oreka egoki bat gorde dadila administrazio-jarduketaren efikaziaren eta herritarren eta enpresen eskubideen babes ezinbestekoaren artean, eskubideok oinarrizko berdintasun-kondizioetan baliatu behar baitira lurraldeko edozein lekutan, edozein administraziorekin daudela ere harremanetan haien titularrak.

Estas actuaciones «ad extra» de las Administraciones cuentan con mención expresa en el artículo 105 del texto constitucional, que establece que la Ley regulará la audiencia de los ciudadanos, directamente o a través de las organizaciones y asociaciones reconocidas por la Ley, en el procedimiento de elaboración de las disposiciones administrativas que les afecten, así como el procedimiento a través del cual deben producirse los actos administrativos, garantizando, cuando proceda, la audiencia a los interesados.

Administrazioen ad extra jarduketa horiek espresuki aipatuak daude Konstituzioaren 105. artikuluan, esaten baitu legeak arautuko duela herritarren entzunaldia, zuzenean edo legeak aitortutako antolakunde eta elkarteen bidez, eragiten dieten administrazio-xedapenak egiteko prozeduran, eta orobat administrazio-egintzek segitu beharreko prozedura, hala dagokionean interesdunei entzunaldia emango zaiela bermatuz.

A ello cabe añadir que el artículo 149.1.18.ª de la Constitución Española atribuye al Estado, entre otros aspectos, la competencia para regular el procedimiento administrativo común, sin perjuicio de las especialidades derivadas de la organización propia de las Comunidades Autónomas, así como el sistema de responsabilidad de todas las Administraciones Públicas.

Horretaz gainera, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18 artikuluak Estatuari esleitzen dio, beste zenbait gairen artean, administrazio-prozedura erkidea arautzeko eskumena, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoen berezko antolamendutik datozen berezitasunak, eta halaber administrazio publiko guztien erantzukizun-sistema.

De acuerdo con el marco constitucional descrito, la presente Ley regula los derechos y garantías mínimas que corresponden a todos los ciudadanos respecto de la actividad administrativa, tanto en su vertiente del ejercicio de la potestad de autotutela, como de la potestad reglamentaria e iniciativa legislativa.

Deskribatutako konstituzio-esparruarekin bat etorriz, lege honek arautzen du zer eskubide eta gutxieneko berme dituzten herritar guztiek administrazio-jarduerari dagokionez, bai autobabes-ahala baliatzearen aldetik, bai erregelamenduak egiteko ahalaren eta legegintza-ekimenaren aldetik.

Por lo que se refiere al procedimiento administrativo, entendido como el conjunto ordenado de trámites y actuaciones formalmente realizadas, según el cauce legalmente previsto, para dictar un acto administrativo o expresar la

Administrazio-prozedurari dagokionez, halakotzat harturik administrazio-egintza bat emateko edo Administrazioaren borondatea adierazteko formalki egindako izapide eta jarduketen multzo ordenatua, erregulazio berri honekin ez dira

voluntad de la Administración, con esta nueva regulación no se agotan las competencias estatales y autonómicas para establecer especialidades «ratione materiae» o para concretar ciertos extremos, como el órgano competente para resolver, sino que su carácter de común resulta de su aplicación a todas las Administraciones Públicas y respecto a todas sus actuaciones.

Así lo ha venido reconociendo el Tribunal Constitucional en su jurisprudencia, al considerar que la regulación del procedimiento administrativo común por el Estado no obsta a que las Comunidades Autónomas dicten las normas de procedimiento necesarias para la aplicación de su Derecho sustantivo, siempre que se respeten las reglas que, por ser competencia exclusiva del Estado, integran el concepto de Procedimiento Administrativo Común con carácter básico.

III

Son varios los antecedentes legislativos relevantes en esta materia.

El legislador ha hecho evolucionar el concepto de procedimiento administrativo y adaptando la forma de actuación de las Administraciones al contexto histórico y la realidad social de cada momento.

Al margen de la conocida como Ley de Azcárate, de 19 de octubre de 1889, la primera regulación completa del procedimiento administrativo en nuestro ordenamiento jurídico es la contenida en la Ley de Procedimiento Administrativo de 17 de julio de 1958.

La Constitución de 1978 alumbra un nuevo concepto de Administración, expresa y plenamente sometida a la Ley y al Derecho, como expresión democrática de la voluntad popular, y consagra su carácter instrumental, al ponerla al servicio objetivo de los intereses generales bajo la dirección del Gobierno, que responde políticamente por su gestión.

En este sentido, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, supuso un hito clave de la evolución del Derecho administrativo en el nuevo marco constitucional.

Para ello, incorporó avances significativos en las relaciones de las Administraciones con los administrados mediante la mejora del funcionamiento de aquellas y, sobre todo, a través de una mayor garantía de los derechos de los

agortzen Estatuak eta autonomia-erkidegoek ratione materiae berezitasunak ezartzeko dituzten eskumenak edo zenbait alderdi zehazteko dituztenak, hala nola ebazteko eskumena duen organoa; administrazio-prozeduraren erkide-izaera, aitzitik, administrazio publiko guztiei eta jarduera guztietarako aplikatzetik dator.

Hala aitortu izan du Konstituzio Auzitegiak bere jurisprudentzian, adierazi baitu Estatuak administrazio-prozedura erkidea arautzeak ez duela eragozten autonomia-erkidegoek zuzenbide substantiboa aplikatzeko behar dituzten prozedura-arauak ematea, betiere errespetatzen badira Estatuaren eskumen esklusibo izateagatik administrazio-prozedura erkidearen oinarrizko kontzeptua osatzen duten erregelak.

III

Aurrekari bat baino gehiago ditu gai honen inguruko legegintzak.

Legegilea administrazio-prozeduraren kontzeptua aldaraziz eta administrazioen jarduteko modua egokituz joan da une bakoitzeko testuinguru historikora eta gizarte-errealitatera.

Alde batera utzita Azkarateren Legea deritzona, 1889ko urriaren 19koa, gure ordenamendu juridikoko administrazio-prozeduraren erregulazio osoetan lehena 1958ko uztailaren 17ko Administrazio Prozeduraren Legea da.

1978ko Konstituzioak administrazioaren kontzeptu berri bat sortu zuen, espresuki eta osotara legearen eta zuzenbidearen mende, herri-borondatearen adierazpen demokratiko gisa, eta haren izaera instrumentala berretsi zuen, interes orokorren zerbitzuan jartzean Gobernuaren zuzendaritzapean, zeinak erantzuten baitu politikoki haren kudeaketaz.

Alde horretatik, azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, mugarri eta giltzarri izan zen Administrazio Zuzenbideak konstituzio-esparru berrian izango zuen bilakabidean.

Horretarako, aurrerapen esanguratsuak egin zituen administrazioek administratuekin dituzten harremanetan, administrazioen funtzionamendua hobetzearen bitartez eta, batez ere, herritarrek Administrazioaren autobabes-ahalaren aurrean

ciudadanos frente a la potestad de autotutela de la Administración, cuyo elemento de cierre se encuentra en la revisión judicial de su actuación por ministerio del artículo 106 del texto fundamental.

dituzten eskubideen berme handiago baten bitartez; horren azken osagaia haren jarduketaren berrikuspen judizialean datza, oinarrizko testuaren 106. artikuluaren indarrez.

La Ley 4/1999, de 13 de enero, de modificación de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, reformuló varios aspectos sustanciales del procedimiento administrativo, como el silencio administrativo, el sistema de revisión de actos administrativos o el régimen de responsabilidad patrimonial de las Administraciones, lo que permitió incrementar la seguridad jurídica de los interesados.

Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak, zeinak aldatu baitzuen azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena, birformulatu egin zituen administrazio-prozeduraren alderdi funtsezko batzuk, hala nola administrazio-isiltasuna, administrazio-egintzak berrikusteko sistema eta administrazioen ondare-erantzukizunaren araubidea, eta horrek handitu egin zuen interesdunen segurtasun juridikoa.

El desarrollo de las tecnologías de la información y comunicación también ha venido afectando profundamente a la forma y al contenido de las relaciones de la Administración con los ciudadanos y las empresas.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien garapenak ere eragin sakona izan du Administrazioak herritarrekin eta enpresekin dituen harremanen forman eta edukian.

Si bien la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, ya fue consciente del impacto de las nuevas tecnologías en las relaciones administrativas, fue la Ley 11/2007, de 22 de junio, de acceso electrónico de los ciudadanos a los Servicios Públicos, la que les dio carta de naturaleza legal, al establecer el derecho de los ciudadanos a relacionarse electrónicamente con las Administraciones Públicas, así como la obligación de éstas de dotarse de los medios y sistemas necesarios para que ese derecho pudiera ejercerse.

Azaroaren 26ko 30/1992 Legea jada ohartu zen teknologia berriek administrazio-harremanetan duten garrantziaz, baina legezko aitortza ekainaren 22ko 11/2007 Legeak eman zien, Herritarrek Zerbitzu Publikoetan Sarbide Elektronikoa izateari buruzkoak, herritarrek administrazio publikoekin elektronikoki harremanetan jartzeko duten eskubidea ezarri baitzuen, eta orobat administrazioen betebeharra zela eskubide hori baliatzeko behar diren bitarteko eta sistemak eskuratzea.

Sin embargo, en el entorno actual, la tramitación electrónica no puede ser todavía una forma especial de gestión de los procedimientos sino que debe constituir la actuación habitual de las Administraciones.

Hala ere, gaur egungo ingurumarian, izapidetze elektronikoa ezin da izan oraindik prozedurak kudeatzeko modu berezi bat; administrazioen ohiko jarduketa-modua izan behar du.

Porque una Administración sin papel basada en un funcionamiento íntegramente electrónico no sólo sirve mejor a los principios de eficacia y eficiencia, al ahorrar costes a ciudadanos y empresas, sino que también refuerza las garantías de los interesados.

Izan ere, paperik gabeko administrazio batek, funtzionamendu erabat elektronikoan oinarriturik, efikazia- eta efizientzia-printzipioak egokiago zerbitzatzeaz gain, kostuak aurrezten dizkie herritar eta enpresei, eta interesdunen bermeak indartu ere egiten ditu.

En efecto, la constancia de documentos y actuaciones en un archivo electrónico facilita el cumplimiento de las obligaciones de transparencia, pues permite ofrecer información puntual, ágil y actualizada a los interesados.

Hain zuzen ere, dokumentazioa eta jarduketak artxibo elektroniko batean izateak erraztu egiten du gardentasunerako betebeharra konplitzea, aukera ematen baitu interesdunei unean uneko informazio bizkorra eta eguneratua eskaintzeko.

Por otra parte, la regulación de esta materia venía adoleciendo de un problema de dispersión normativa y superposición de distintos regímenes jurídicos no siempre coherentes entre sí, de lo que

Bestalde, gai honen erregulazioak bazuen gabezia bat: arauak sakabanatuta zeuden eta araubide juridiko bat baino gehiago gainjartzen ziren, ez beti elkarrekin koherenteak. Horren erakusgarri da

es muestra la sucesiva aprobación de normas con incidencia en la materia, entre las que cabe citar: la Ley 17/2009, de 23 de noviembre, sobre libre acceso a las actividades de servicios y su ejercicio; la Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible; la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, o la Ley 20/2013, de 9 de diciembre, de garantía de la unidad de mercado.

Ante este escenario legislativo, resulta clave contar con una nueva Ley que sistematice toda la regulación relativa al procedimiento administrativo, que clarifique e integre el contenido de las citadas Ley 30/1992, de 26 de noviembre y Ley 11/2007, de 22 de junio, y profundice en la agilización de los procedimientos con un pleno funcionamiento electrónico.

Todo ello revertirá en un mejor cumplimiento de los principios constitucionales de eficacia y seguridad jurídica que deben regir la actuación de las Administraciones Públicas.

IV

Durante los más de veinte años de vigencia de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, en el seno de la Comisión Europea y de la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos se ha ido avanzando en la mejora de la producción normativa («Better regulation» y «Smart regulation»).

Los diversos informes internacionales sobre la materia definen la regulación inteligente como un marco jurídico de calidad, que permite el cumplimiento de un objetivo regulatorio a la vez que ofrece los incentivos adecuados para dinamizar la actividad económica, permite simplificar procesos y reducir cargas administrativas.

Para ello, resulta esencial un adecuado análisis de impacto de las normas de forma continua, tanto ex ante como ex post, así como la participación de los ciudadanos y empresas en los procesos de elaboración normativa, pues sobre ellos recae el cumplimiento de las leyes.

En la última década, la Ley 17/2009, de 23 de noviembre, y la Ley 2/2011, de 4 de marzo, supusieron un avance en la implantación de los principios de buena regulación, especialmente en lo referido al ejercicio de las actividades económicas.

bata bestearen atzetik onetsi izana gaian eragina duten zenbait arau: besteak beste, 17/2009 Legea, azaroaren 23koa, Zerbitzu-jardueretara irispide librea izateari eta haietan aritzeari buruzkoa; 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa; 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzkoa, eta 20/2013 Legea, abenduaren 9koa, Merkatu-batasunaren Bermeari buruzkoa.

Lege-egoera horren aurrean, giltzarria da lege berri bat izatea administrazio-prozedurari buruzko erregulazio guztia sistematizatuko duena, aipatutako azaroaren 26ko 30/1992 Legearen eta ekainaren 22ko 11/2007 Legearen edukia argituko eta integratuko duena eta prozedurak arinduko dituena funtzionamendu erabat elektronikoarekin.

Horrekin guztiarekin, hobeto beteko dira administrazio publikoen jarduketa gidatu behar duten efikaziaren eta segurtasun juridikoaren printzipio konstituzionalak.

IV

Hogei urte baino gehiago egin ditu indarrean azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, eta, denbora horretan, Europako Batzordearen eta Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundearen barruan hobetuz joan da araugintza (Better regulation eta Smart regulation).

Nazioartean gaiari buruz egin diren txostenek honela definitzen dute erregulazio adimenduna: kalitateko esparru juridiko bat, erregulazio-xedea betetzeko modua eskaintzearekin batera jarduera ekonomikoa dinamizatzeko pizgarri egokiak eskaintzen dituena eta prozesuak sinpletzeko eta administrazio-kargak gutxitzeko aukera ematen duena.

Horretarako, funtsezkoa da arauen eraginaren analisi bat egitea etengabe, bai ex ante eta bai ex post, eta herritarrek eta enpresek parte hartzea arauak egiteko prozesuetan, haien gain joango baita gero legeak bete beharra.

Azkeneko hamarkadan, azaroaren 23ko 17/2009 Legeak eta martxoaren 4ko 2/2011 Legeak aurrerapena ekarri dute erregulazio onaren printzipioak ezartzean, batez ere jarduera ekonomikoetan aritzeari dagokionez.

Ya en esta legislatura, la Ley 20/2013, de 9 de diciembre, ha dado importantes pasos adicionales, al poner a disposición de los ciudadanos la información con relevancia jurídica propia del procedimiento de elaboración de normas.

Jada legegintzaldi honetan, abenduaren 9ko 20/2013 Legeak beste urrats batzuk gehiago egin ditu, herritarren eskura jarri baitu arauak egiteko prozedurari dagokionez garrantzi juridikoa duen informazioa.

Sin embargo, es necesario contar con una nueva regulación que, terminando con la dispersión normativa existente, refuerce la participación ciudadana, la seguridad jurídica y la revisión del ordenamiento.

Hala ere, beharrezkoa da beste erregulazio bat izatea, dagoen arau-sakabanaketa amaitzeko eta herritarren parte-hartzea, segurtasun juridikoa eta ordenamenduaren berrikuspena sendotzeko.

Con estos objetivos, se establecen por primera vez en una ley las bases con arreglo a las cuales se ha de desenvolver la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria de las Administraciones Públicas con el objeto de asegurar su ejercicio de acuerdo con los principios de buena regulación, garantizar de modo adecuado la audiencia y participación de los ciudadanos en la elaboración de las normas y lograr la predictibilidad y evaluación pública del ordenamiento, como corolario imprescindible del derecho constitucional a la seguridad jurídica.

Helburu horiekin, lehen aldiz ezarri dira lege batean administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala gidatu behar duten oinarriak, erregulazio onaren printzipioen arabera baliatuko direla segurtatzeko, araugintzan herritarrei entzunaldia eta parte hartzeko aukera modu egokian emango zaiela bermatzeko, eta ordenamenduaren aurresangarritasuna eta ebaluazio publikoa lortzeko, segurtasun juridikorako eskubide konstituzionalaren ezinbesteko korolario gisa.

Esta novedad deviene crucial especialmente en un Estado territorialmente descentralizado en el que coexisten tres niveles de Administración territorial que proyectan su actividad normativa sobre espacios subjetivos y geográficos en muchas ocasiones coincidentes.

Berritasun hori funtsezkoa da, batez ere lurraldez deszentralizatua den estatu batean, zeinean batera bizi baitira lurralde-administrazioaren hiru maila, beren araugintza-jarduera sarri bat datozen esparru subjektibo eta geografikoetan proiektatzen dutenak.

Con esta regulación se siguen las recomendaciones que en esta materia ha formulado la Organización para la Cooperación y el Desarrollo Económicos (OCDE) en su informe emitido en 2014 «Spain: From Administrative Reform to Continous Improvement».

Erregulazio honetan, aintzat hartzen dira gaiari buruz Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundeak (ELGE) 2014ko txosten honetan emandako gomendioak: «Spain: From Administrative Reform to Continuous Improvement».

V

V

La Ley se estructura en 133 artículos, distribuidos en siete títulos, cinco disposiciones adicionales, cinco disposiciones transitorias, una disposición derogatoria y siete disposiciones finales.

Lege honek 133 artikulu ditu, zazpi titulutan banatuak; bost xedapen gehigarri, bost xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta zazpi azken xedapen.

El título preliminar, de disposiciones generales, aborda el ámbito objetivo y subjetivo de la Ley.

Atariko titulua, xedapen orokorrena, legearen eremu objektiboari eta subjektiboari buruzkoa da.

Entre sus principales novedades, cabe señalar, la inclusión en el objeto de la Ley, con carácter básico, de los principios que informan el ejercicio de la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria de las Administraciones.

Haren berritasun nagusien artean, aipatzekoa da legearen xedean sartu direla, oinarrizko izaerarekin, administrazio publikoen legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala baliatzeko modua informatzen duten printzipioak.

Se prevé la aplicación de lo previsto en esta Ley a todos los sujetos comprendidos en el concepto de

Lege honetan aurreikusitakoa aplikatuko zaie sektore publikoaren kontzeptuan sartzen diren

Sector Público, si bien las Corporaciones de Derecho Público se regirán por su normativa específica en el ejercicio de las funciones públicas que les hayan sido atribuidas y supletoriamente por la presente Ley.

subjektu guztiei, nahiz eta zuzenbide publikoko korporazioak beren araudi espezifikoak gidatuko dituen esleitu zaizkien eginkizun publikoak betetzean, eta modu osagarrian lege honek.

Asimismo, destaca la previsión de que sólo mediante Ley puedan establecerse trámites adicionales o distintos a los contemplados en esta norma, pudiéndose concretar reglamentariamente ciertas especialidades del procedimiento referidas a la identificación de los órganos competentes, plazos, formas de iniciación y terminación, publicación e informes a recabar.

Aipagarria da, halaber, xedatu denaren arabera legez bakarrik ezar daitezkeela izapide gehigarriak edo arau honetan adierazitakoez bestelakoak, eta erregelamenduz zehaztu daitezkeela prozeduraren zenbait berezitasun, organo eskudunak identifikatzeari, epeei, hasteko eta amaitzeko moduei, argitaratzeari eta eskatu beharreko txostenei buruzkoak.

Esta previsión no afecta a los trámites adicionales o distintos ya recogidos en las leyes especiales vigentes, ni a la concreción que, en normas reglamentarias, se haya producido de los órganos competentes, los plazos propios del concreto procedimiento por razón de la materia, las formas de iniciación y terminación, la publicación de los actos o los informes a recabar, que mantendrán sus efectos.

Horrek ez die eragiten indarrean dauden legeetan lehendik jasoak dauden izapide gehigarri edo bestelakoei, ez eta erregelamenduzko arauetan egin diren zehaztapenei ere, denek ere beren ondorioak mantenduko baitituzte: organo eskudunak, gaia dela-eta dagokion prozedura zehatzaren epeak, hasteko eta amaitzeko moduak, egintzen argitalpena edo eskatu beharreko txostenak.

Así, entre otros casos, cabe señalar la vigencia del anexo 2 al que se refiere la disposición adicional vigésima novena de la Ley 14/2000, de 29 de diciembre, de medidas fiscales, administrativas y del orden social, que establece una serie de procedimientos que quedan excepcionados de la regla general del silencio administrativo positivo.

Hala, besteak beste, aipagarria da indarrean dirauela Neurri Fiskal, Administratibo eta Gizarte Arlokoei buruzko abenduaren 29ko 14/2000 Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen 2. eranskinak, zeinak prozedura batzuk ezartzen baititu administrazio-isiltasun positiboaren erregela orokorretik salbuetsita geratzen direnak.

El título I, de los interesados en el procedimiento, regula entre otras cuestiones, las especialidades de la capacidad de obrar en el ámbito del Derecho administrativo, haciéndola extensiva por primera vez a los grupos de afectados, las uniones y entidades sin personalidad jurídica y los patrimonios independientes o autónomos cuando la Ley así lo declare expresamente.

I. titulua prozedurako interesdunei buruzkoa da, eta hartan erregulatzen da, beste gai batzuen artean, zer berezitasun dituen jarduteko gaitasunak Administrazio Zuzenbidearen eremuan, lehen aldiz zabalduz hura ukituen taldeetara, nortasun juridiko propiorik gabeko batasun eta entitateetara eta ondare independente edo autonomoetara Legeak espresuki hala adierazten duenean.

En materia de representación, se incluyen nuevos medios para acreditarla en el ámbito exclusivo de las Administraciones Públicas, como son el apoderamiento «apud acta», presencial o electrónico, o la acreditación de su inscripción en el registro electrónico de apoderamientos de la Administración Pública u Organismo competente.

Ordezkaritzari dagokionez, administrazio publikoen eremu esklusiboan hura egiaztatzeko modu berriak sartu dira, hala nola apud acta ahalordetzea, aurrez aurrekoa edo elektronikoa, edo administrazio publikoaren edo organismo eskudunaren ahalordetzeen erregistro elektronikoan inskribatuta dagoela egiaztatzea.

Igualmente, se dispone la obligación de cada Administración Pública de contar con un registro electrónico de apoderamientos, pudiendo las Administraciones territoriales adherirse al del Estado, en aplicación del principio de eficiencia, reconocido en el artículo 7 de la Ley

Era berean, xedatzen da administrazio publiko bakoitzak ahalordetzeen erregistro elektroniko bat eduki beharra daukala, eta lurralde-administrazioetakoak atxiki daitezkeela Estatukora, efizientzia-printzipioa aplikatuz, zeina aitortua baitago Aurrekontu Egonkortasunari eta

Orgánica 2/2012, de 27 de abril, de Estabilidad Presupuestaria y Sostenibilidad Financiera.

Por otro lado, este título dedica parte de su articulado a una de las novedades más importantes de la Ley: la separación entre identificación y firma electrónica y la simplificación de los medios para acreditar una u otra, de modo que, con carácter general, sólo será necesaria la primera, y se exigirá la segunda cuando deba acreditarse la voluntad y consentimiento del interesado.

Se establece, con carácter básico, un conjunto mínimo de categorías de medios de identificación y firma a utilizar por todas las Administraciones.

En particular, se admitirán como sistemas de firma: los sistemas de firma electrónica reconocida o cualificada y avanzada basados en certificados electrónicos cualificados de firma electrónica, que comprenden tanto los certificados electrónicos de persona jurídica como los de entidad sin personalidad jurídica; los sistemas de sello electrónico reconocido o cualificado y de sello electrónico avanzado basados en certificados cualificados de sello electrónico; así como cualquier otro sistema que las Administraciones Públicas consideren válido, en los términos y condiciones que se establezcan.

Se admitirán como sistemas de identificación cualquiera de los sistemas de firma admitidos, así como sistemas de clave concertada y cualquier otro que establezcan las Administraciones Públicas.

Tanto los sistemas de identificación como los de firma previstos en esta Ley son plenamente coherentes con lo dispuesto en el Reglamento (UE) n.º 910/2014 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de julio de 2014, relativo a la identificación electrónica y los servicios de confianza para las transacciones electrónicas en el mercado interior y por la que se deroga la Directiva 1999/93/CE.

Debe recordarse la obligación de los Estados miembros de admitir los sistemas de identificación electrónica notificados a la Comisión Europea por el resto de Estados miembros, así como los sistemas de firma y sello electrónicos basados en certificados electrónicos cualificados emitidos por prestadores de servicios que figuren en las listas de confianza de otros Estados miembros de la Unión Europea, en los términos que prevea dicha norma comunitaria.

Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 7. artikuluan.

Bestalde, titulu horretako artikuluen parte bat Legearen berritasunik handienetako batek hartzen du: identifikazioa eta sinadura elektronikoa bereiztea eta bata eta bestea egiaztatzeko moduak sinplifikatzea, halako moldez non, oro har, lehena bakarrik izango baita beharrezko eta bigarrena, berriz, interesdunaren borondatea eta adostasuna egiaztatu behar denean eskatuko baita.

Oinarri gisa, administrazio guztiek erabili beharreko identifikazio- eta sinadura-bitartekoen gutxieneko kategorien multzo bat ezartzen da.

Zehazki, sinadura-sistema gisa onartuko dira: sinadura elektroniko aitortu edo kualifikatu eta aurreratuko sistemak, sinadura elektronikoko ziurtagiri elektroniko kualifikatuetan oinarrituak, zeinetan sartzen baitira bai pertsona juridikoaren ziurtagiri elektronikoak bai nortasun juridikorik gabeko entitatearenak; zigilu elektroniko aitortu edo kualifikatuko eta zigilu elektroniko aurreratuko sistemak, zigilu elektronikoko ziurtagiri kualifikatuetan oinarrituak; eta orobat administrazio publikoek baliozkotzat jotzen duten beste edozein sistema, ezartzen diren modu eta baldintzetan.

Identifikazio-sistema gisa onartuko da onartutako sinadura-sistemetako edozein, eta orobat gako itunduko sistemak eta administrazio publikoek ezartzen duten beste edozein.

Lege honetan aurreikusitako identifikazio-sistemak nahiz sinadura-sistemak guztiz koherenteak dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 23ko 910/2014 Erregelamenduan (EB) xedatutakoarekin. Erregelamendu hori identifikazio elektronikoari eta barne-merkatuko transakzio elektronikoetarako konfiantzazko zerbitzuei buruzkoa da, eta 1999/93/EE Zuzentaraua indargabetzen du.

Gogoratu behar da estatu kideak behartuta daudela gainerako estatu kideek Europako Batzordeari jakinarazitako identifikazio elektronikoko sistemak onartzera, eta orobat Europar Batasuneko beste estatu kide batzuen konfiantzazko zerrendetan ageri diren zerbitzu-emaileek egindako ziurtagiri elektroniko kualifikatuetan oinarritutako sinadura eta zigilu elektronikoak, Batasunaren arauak aurreikusitakoaren arabera.

El título II, de la actividad de las Administraciones Públicas, se estructura en dos capítulos.

El capítulo I sobre normas generales de actuación identifica como novedad, los sujetos obligados a relacionarse electrónicamente con las Administraciones Públicas.

Asimismo, en el citado Capítulo se dispone la obligación de todas las Administraciones Públicas de contar con un registro electrónico general, o, en su caso, adherirse al de la Administración General del Estado.

Estos registros estarán asistidos a su vez por la actual red de oficinas en materia de registros, que pasarán a denominarse oficinas de asistencia en materia de registros, y que permitirán a los interesados, en el caso que así lo deseen, presentar sus solicitudes en papel, las cuales se convertirán a formato electrónico.

En materia de archivos se introduce como novedad la obligación de cada Administración Pública de mantener un archivo electrónico único de los documentos que correspondan a procedimientos finalizados, así como la obligación de que estos expedientes sean conservados en un formato que permita garantizar la autenticidad, integridad y conservación del documento.

A este respecto, cabe señalar que la creación de este archivo electrónico único resultará compatible con los diversos sistemas y redes de archivos en los términos previstos en la legislación vigente, y respetará el reparto de responsabilidades sobre la custodia o traspaso correspondiente.

Asimismo, el archivo electrónico único resultará compatible con la continuidad del Archivo Histórico Nacional de acuerdo con lo previsto en la Ley 16/1985, de 25 de junio, del Patrimonio Histórico Español y su normativa de desarrollo.

Igualmente, en el capítulo I se regula el régimen de validez y eficacia de las copias, en donde se aclara y simplifica el actual régimen y se definen los requisitos necesarios para que una copia sea auténtica, las características que deben reunir los documentos emitidos por las Administraciones Públicas para ser considerados válidos, así como los que deben aportar los interesados al procedimiento, estableciendo con carácter general la obligación de las Administraciones Públicas de no requerir documentos ya aportados por los interesados, elaborados por las Administraciones Públicas o documentos originales, salvo las excepciones contempladas en la Ley.

II. titulua administrazio publikoen jarduerari buruzkoa da, eta bi kapitulutan egituratuta dago.

I. kapitulua jarduketa-arau orokorrei buruzkoa da. Berritasun gisa, xedatzen du zer subjektu dauden beharturik administrazio publikoekin harremanak modu elektronikoan izatera.

Era berean, kapitulu horretan xedatzen da administrazio publiko guztiak behartuta daudela erregistro elektroniko orokor bat izatera edo, bestela, Estatuaren Administrazio Orokorrarenera atxikitzera.

Erregistro horiei laguntzeko egongo dira gaur egun erregistro-gaietarako dauden bulegoak, aurrerantzean erregistro-gaietan laguntzeko bulego izendatuak, zeinek interesdunei aukera emango baitiete, hala nahi badute, eskaerak paperean aurkezteko, eta gero formatu elektronikora bihurtzeko.

Artxiboei dagokienez, berritasun gisa sartzen da administrazio publiko bakoitza behartuta dagoela artxibo elektroniko bakar batean izatera amaitutako prozedurei dagozkien dokumentu guztiak, eta behartuta daudela, orobat, espediente horiek dokumentuaren autentikotasuna, osotasuna eta kontserbazioa bermatuko duen formatu batean kontserbatzera.

Alde horretatik, aipatzekoa da artxibo elektroniko bakar hori sortzea bateragarria izango dela dauden artxibo-sistema eta -sareekin, indarrean den legerian aurreikusitako moduan, eta errespetatuko duela dagokion zaintza edo eskualdaketari buruzko erantzukizun-banaketa.

Bestalde, artxibo elektroniko bakarrarekin bateragarria izango da Artxibo Historiko Nazionalak irautea, Espainiako Ondare Historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legean eta hura garatzeko araudian aurreikusitako moduan.

I. kapituluan ezartzen da, orobat, kopien baliozkotasunaren eta efikaziaren araubidea: argitu eta sinplifikatu egiten da gaur egungoa, eta definitzen da zer betekizun behar diren kopia bat autentikoa izateko, zer ezaugarri izan behar dituzten administrazio publikoek emandako dokumentuek baliozkotzat jotzeko, eta zer ezaugarri interesdunek prozeduran ekarritakoek; oro har, betebehartzat ezartzen da administrazio publikoek ez eskatzea interesdunek lehenago jarritako dokumenturik, administrazio publikoek prestaturik edo jatorrizkorik, Legean ezarritako salbuespenak salbu.

Por tanto, el interesado podrá presentar con carácter general copias de documentos, ya sean digitalizadas por el propio interesado o presentadas en soporte papel.

Beraz, interesdunak oro har dokumentuen kopiak aurkeztu ahal izango ditu, izan berak digitalizatuak edo izan paperezkoak.

Destaca asimismo, la obligación de las Administraciones Públicas de contar con un registro u otro sistema equivalente que permita dejar constancia de los funcionarios habilitados para la realización de copias auténticas, de forma que se garantice que las mismas han sido expedidas adecuadamente, y en el que, si así decide organizarlo cada Administración, podrán constar también conjuntamente los funcionarios dedicados a asistir a los interesados en el uso de medios electrónicos, no existiendo impedimento a que un mismo funcionario tenga reconocida ambas funciones o sólo una de ellas.

Nabarmentzekoa da, halaber, administrazio publikoak behartuta daudela erregistro bat edo beste sistema baliokide bat izatera, kopia autentikoak egiteko gaituta dauden funtzionarioen berri emango duena, hartara bermatzeko kopiak egoki eginak direla, eta hartan, administrazio bakoitzak hala erabakitzen badu, batera agertu ahal izango direla, orobat, interesdunei bitarteko elektronikoen erabileran laguntzen aritzen diren funtzionarioak; ez dago eragozpenik funtzionario batek bi eginkizunak aitortuak izateko edo bietako bat bakarrik.

El capítulo II, de términos y plazos, establece las reglas para su cómputo, ampliación o la tramitación de urgencia.

II. kapitulua epemugei eta epeei buruzkoa da, eta haiek zenbatzeko, luzatzeko edo presaz izapidetzeko erregelak ezartzen ditu.

Como principal novedad destaca la introducción del cómputo de plazos por horas y la declaración de los sábados como días inhábiles, unificando de este modo el cómputo de plazos en el ámbito judicial y el administrativo.

Berritasun nagusi gisa, aipatzekoa da epeak orduka ere zenbatuko direla eta larunbatak egun baliogabetzat jo direla, horrekin eremu judizialeko eta administratiboko epeak zenbatzeko modua berdinduz.

El título III, de los actos administrativos, se estructura en tres capítulos y se centra en la regulación de los requisitos de los actos administrativos, su eficacia y las reglas sobre nulidad y anulabilidad, manteniendo en su gran mayoría las reglas generales ya establecidas por la Ley 30/1992, de 26 de noviembre.

III. titulua, administrazio-egintzei buruzkoa, hiru kapitulutan egituratuta dago. Administrazio-egintzen betekizunak, haien efikazia eta deuseztasunari eta deuseztagarritasunari buruzko erregelak arautzen ditu, baina bere horretan uzten ditu azaroaren 26ko 30/1992 Legeak ezarritako arau orokor gehienak.

Merecen una mención especial las novedades introducidas en materia de notificaciones electrónicas, que serán preferentes y se realizarán en la sede electrónica o en la dirección electrónica habilitada única, según corresponda.

Bereziki aipatzekoak dira jakinarazpen elektronikoen gaian sartutako berritasunak. Halako jakinarazpenek lehentasuna izango dute, eta, dagokionaren arabera, egoitza elektronikoan edo emandako helbide elektroniko bakarrean egingo dira.

Asimismo, se incrementa la seguridad jurídica de los interesados estableciendo nuevas medidas que garanticen el conocimiento de la puesta a disposición de las notificaciones como: el envío de avisos de notificación, siempre que esto sea posible, a los dispositivos electrónicos y/o a la dirección de correo electrónico que el interesado haya comunicado, así como el acceso a sus notificaciones a través del Punto de Acceso General Electrónico de la Administración que funcionará como un portal de entrada.

Bestalde, interesdunen segurtasun juridikoa handitu da, beste neurri batzuk ezarriz jakinarazpenaren berri jasotzen dutela bermatzeko; besteak beste, jakinarazpen-abisuak bidaltzea, ahal den guztietan, interesdunak eman dituen gailu elektronikoetara edo helbide elektronikora, eta bere jakinarazpenetarako irispidea izatea Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorraren bitartez, zeinak irispide-atari baten moduan funtzionatuko baitu.

El título IV, de disposiciones sobre el procedimiento administrativo común, se estructura en siete capítulos y entre sus principales novedades destaca que los anteriores procedimientos especiales sobre potestad sancionadora y responsabilidad patrimonial que la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, regulaba en títulos separados, ahora se han integrado como especialidades del procedimiento administrativo común.

IV. tituluak administrazio-prozedura erkideari buruzko xedapenak biltzen ditu, zazpi kapitulutan. Berritasun nagusien artean, aipatzekoa da orain administrazio-prozedura erkidearen berezitasun moduan integratu direla azaroaren 26ko 30/1992 Legeak titulu bereizitan erregulatzen zituen zehatzeko ahalari eta ondare-erantzukizunari buruzko prozedura bereziak.

Este planteamiento responde a uno de los objetivos que persigue esta Ley, la simplificación de los procedimientos administrativos y su integración como especialidades en el procedimiento administrativo común, contribuyendo así a aumentar la seguridad jurídica.

Planteamendu hori egin da Legearekin bilatzen den helburu batengatik: administrazio-prozedurak sinplifikatzea eta berezitasun moduan integratzea administrazio-prozedura erkidean, segurtasun juridikoa handitzen laguntzeko.

De acuerdo con la sistemática seguida, los principios generales de la potestad sancionadora y de la responsabilidad patrimonial de las Administraciones Públicas, en cuanto que atañen a aspectos más orgánicos que procedimentales, se regulan en la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público.

Jarraitutako sistematikaren arabera, administrazio publikoen zehatzeko ahalaren eta ondare-erantzukizunaren printzipio orokorrak, gehiago dagozkienez alderdi organikoei prozedurazkoei baino, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legean erregulatzen dira.

Asimismo, este título incorpora a las fases de iniciación, ordenación, instrucción y finalización del procedimiento el uso generalizado y obligatorio de medios electrónicos.

Titulu horrek, bestalde, behartu egiten du bitarteko elektronikoak modu orokorrean erabiltzera prozedura hasteko, antolatzeko, instruitzeko eta amaitzeko faseetan.

Igualmente, se incorpora la regulación del expediente administrativo estableciendo su formato electrónico y los documentos que deben integrarlo.

Era berean, administrazio-espedientearen erregulazioa gehitu da, haren formatu elektronikoa eta zer dokumentuk osatu behar duten ezarriz.

Como novedad dentro de este título, se incorpora un nuevo Capítulo relativo a la tramitación simplificada del procedimiento administrativo común, donde se establece su ámbito objetivo de aplicación, el plazo máximo de resolución que será de treinta días y los trámites de que constará.

Titulu horren barruan, kapitulu berri bat sartu da administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatuari buruzkoa, zeinean ezartzen baita haren aplikazio-eremu objektiboa, ebazteko gehieneko epea, hogeita hamar egun, eta zer izapide dituen.

Si en un procedimiento fuera necesario realizar cualquier otro trámite adicional, deberá seguirse entonces la tramitación ordinaria.

Prozedura batean beste edozein izapide gehigarri egin behar bada, izapidetze arruntari jarraitu beharko zaio.

4. Si el informe debiera ser emitido por una Administración Pública distinta de la que tramita el procedimiento en orden a expresar el punto de vista correspondiente a sus competencias respectivas, y transcurriera el plazo sin que aquél se hubiera emitido, se podrán proseguir las actuaciones.

4. Prozedura izapidetzen ari denaz beste administrazio publiko batek egin behar badu txostena, bere eskumenei dagokien ikuspuntua adierazteko, eta epea amaitu bada txostena egin gabe, aurrera jarraitu dezakete jarduketek.

El informe emitido fuera de plazo podrá no ser tenido en cuenta al adoptar la correspondiente resolución.

Epez kanpo egindako txostena ez da nahitaez kontuan hartu behar ebazpena ematean.

Artículo 81. Solicitud de informes y dictámenes en los procedimientos de responsabilidad patrimonial.

81. artikulua. Ondare-erantzukizuneko prozeduretan txostenak eta irizpenak eskatzea.

1. En el caso de los procedimientos de responsabilidad patrimonial será preceptivo solicitar informe al servicio cuyo funcionamiento haya ocasionado la presunta lesión indemnizable, no pudiendo exceder de diez días el plazo de su emisión.

1. Ondare-erantzukizuneko prozeduren kasuan, nahitaez eskatu behar zaio txostena ustezko kalte ordaingarria eragin duen funtzionamenduari dagokion zerbitzuari, eta gehienez ere hamar egunekoa izango da hura emateko epea.

2. Cuando las indemnizaciones reclamadas sean de cuantía igual o superior a 50.000 euros o a la que se establezca en la correspondiente legislación autonómica, así como en aquellos casos que disponga la Ley Orgánica 3/1980, de 22 de abril, del Consejo de Estado, será preceptivo solicitar dictamen del Consejo de Estado o, en su caso, del órgano consultivo de la Comunidad Autónoma.

2. Eskatzen den kalte-ordaina 50.000 euro edo gehiago denean, edo dagokion legeria autonomikoak ezartzen duena baino gehiago, eta halaber Estatu Kontseiluari buruzko apirilaren 22ko 3/1980 Lege Organikoan hala xedatzen den kasuetan, nahitaezkoa izango da irizpena eskatzea Estatu Kontseiluari edo, hala badagokio, autonomia-erkidegoko organo aholku-emaileari.

A estos efectos, el órgano instructor, en el plazo de diez días a contar desde la finalización del trámite de audiencia, remitirá al órgano competente para solicitar el dictamen una propuesta de resolución, que se ajustará a lo previsto en el artículo 91, o, en su caso, la propuesta de acuerdo por el que se podría terminar convencionalmente el procedimiento.

Ondorio horietarako, entzunaldiaren izapidea amaitu eta hurrengo hamar eguneko epean, ebazpen-proposamen bat bidaliko dio instrukzio-organoak organo eskudunari, irizpena eskatzeko, 91. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, edo, hala badagokio, prozedura modu hitzartuan amaitu lezakeen akordio baten proposamena.

El dictamen se emitirá en el plazo de dos meses y deberá pronunciarse sobre la existencia o no de relación de causalidad entre el funcionamiento del

Irizpena bi hilabeteko epean emango da, eta adierazi beharko du kausalitate-loturarik baden edo ez zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren

servicio público y la lesión producida y, en su caso, sobre la valoración del daño causado y la cuantía y modo de la indemnización de acuerdo con los criterios establecidos en esta Ley.

eta gertatutako kaltearen artean, eta, hala badagokio, sortutako kaltearen balioespena zein den eta lege honetan ezarritako irizpideen araberako kalte-ordainaren zenbatekoa eta modua zein diren.

3. En el caso de reclamaciones en materia de responsabilidad patrimonial del Estado por el funcionamiento anormal de la Administración de Justicia, será preceptivo el informe del Consejo General del Poder Judicial que será evacuado en el plazo máximo de dos meses.

3. Estatuak Justizia Administrazioaren ezohiko funtzionamenduagatik duen ondare-erantzukizuna erreklamatzen den kasuetan, nahitaezkoa izango da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txostena, eta gehienez bi hilabeteko epean eman beharko du hark.

El plazo para dictar resolución quedará suspendido por el tiempo que medie entre la solicitud del informe y su recepción, no pudiendo exceder dicho plazo de los citados dos meses.

Ebazpena emateko epea etengo da txostena eskatzen denetik jasotzen den bitartean, eta denbora hori ezin da izan bi hilabete baino gehiago.

Sección 4.ª Participación de los interesados

4. atala Interesdunen parte-hartzea

Artículo 82. Trámite de audiencia.

82. artikulua. Entzunaldiaren izapidea.

1. Instruidos los procedimientos, e inmediatamente antes de redactar la propuesta de resolución, se pondrán de manifiesto a los interesados o, en su caso, a sus representantes, para lo que se tendrán en cuenta las limitaciones previstas en su caso en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre.

1. Prozeduren instrukzioa amaitutakoan, eta ebazpen-proposamena idatzi aurretik, haien berri emango zaie interesdunei edo, hala badagokio, haien ordezkariei, kontuan harturik abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitako mugapenak.

La audiencia a los interesados será anterior a la solicitud del informe del órgano competente para el asesoramiento jurídico o a la solicitud del Dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma, en el caso que éstos formaran parte del procedimiento.

Aholkularitza juridikorako eskumena duen organoari txostena eskatu baino lehen emango zaie entzunaldia interesdunei, edo, autonomia-erkidegoak prozeduraren parte direnean, Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokidearen irizpena eskatu baino lehen.

2. Los interesados, en un plazo no inferior a diez días ni superior a quince, podrán alegar y presentar los documentos y justificaciones que estimen pertinentes.

2. Egoki irizten dieten dokumentu eta justifikazioak alega ditzakete interesdunek, gutxienez hamar egun eta gehienez hamabost egun iraungo duen epe batean.

3. Si antes del vencimiento del plazo los interesados manifiestan su decisión de no efectuar alegaciones ni aportar nuevos documentos o justificaciones, se tendrá por realizado el trámite.

3. Epea igaro aurretik interesdunek adierazten badute ez dutela alegaziorik egingo ez beste dokumentu edo justifikaziorik aurkeztuko, izapidea egintzat joko da.

4. Se podrá prescindir del trámite de audiencia cuando no figuren en el procedimiento ni sean tenidos en cuenta en la resolución otros hechos ni otras alegaciones y pruebas que las aducidas por el interesado.

4. Entzunaldiaren izapidea egin gabe utz daiteke prozeduran ez bada azaltzen eta ebazpenean ez bada kontuan hartu interesdunak azaldutako egitate, alegazio eta frogak besterik.

5. En los procedimientos de responsabilidad patrimonial a los que se refiere el artículo 32.9 de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público, será necesario en todo caso dar audiencia al contratista, notificándole cuantas actuaciones se

5. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 32.9 artikuluan aipatzen den ondare-erantzukizunari buruzko prozeduretan, beharrezkoa da beti entzunaldia ematea kontratistari, prozeduran egiten diren jarduketa guztien berri emanez,

realicen en el procedimiento, al efecto de que se persone en el mismo, exponga lo que a su derecho convenga y proponga cuantos medios de prueba estime necesarios.

prozeduran pertsonatu dadin, bere eskubideei dagokiena azaldu dezan eta egoki deritzen frogabide guztiak proposa ditzan.

Artículo 83. Información pública.

83. artikulua. Informazio publikoa.

1. El órgano al que corresponda la resolución del procedimiento, cuando la naturaleza de éste lo requiera, podrá acordar un período de información pública.

1. Ebazpena eman behar duen organoak, hala eskatzen badu prozeduraren izaerak, erabaki dezake informazio publikorako aldi bat izatea.

2. A tal efecto, se publicará un anuncio en el Diario oficial correspondiente a fin de que cualquier persona física o jurídica pueda examinar el expediente, o la parte del mismo que se acuerde.

2. Horretarako, iragarki bat argitaratuko da dagokion aldizkari ofizialean, edozein pertsona fisiko edo juridikok aztertu ahal izan dezan espedientea edo erabakitzen den espediente-partea.

El anuncio señalará el lugar de exhibición, debiendo estar en todo caso a disposición de las personas que lo soliciten a través de medios electrónicos en la sede electrónica correspondiente, y determinará el plazo para formular alegaciones, que en ningún caso podrá ser inferior a veinte días.

Iragarkian, adierazi behar da erakustaldia non egingo den, eta hala eskatzen duten pertsonen eskura jarri beharko da, bitarteko elektronikoz, dagokion egoitza elektronikoan. Alegazioak egiteko epea ere zehaztu behar du iragarkiak, inoiz ez hogei egun baino gutxiagokoa.

3. La incomparecencia en este trámite no impedirá a los interesados interponer los recursos procedentes contra la resolución definitiva del procedimiento.

3. Izapide horretan ez agertzeak ez die interesdunei eragotziko prozeduraren behin betiko ebazpenaren aurka dagozkien errekurtsoak aurkeztea.

La comparecencia en el trámite de información pública no otorga, por sí misma, la condición de interesado.

Informazio publikoaren izapidean agertzeagatik ez da inor, besterik gabe, interesdun bihurtzen.

No obstante, quienes presenten alegaciones u observaciones en este trámite tienen derecho a obtener de la Administración una respuesta razonada, que podrá ser común para todas aquellas alegaciones que planteen cuestiones sustancialmente iguales.

Nolanahi ere, izapide horretan alegazioak edo oharrak aurkezten dituztenek Administrazioaren erantzun arrazoitua jasotzeko eskubidea dute; erantzun bakarra eman dakieke funtsean arazo bera agertzen duten alegazio guztiei.

4. Conforme a lo dispuesto en las leyes, las Administraciones Públicas podrán establecer otras formas, medios y cauces de participación de las personas, directamente o a través de las organizaciones y asociaciones reconocidas por la ley en el procedimiento en el que se dictan los actos administrativos.

4. Legeetan ezarritakoarekin bat etorriz, administrazio publikoek beste era, bitarteko eta bide batzuk ezar ditzakete herritarrek parte har dezaten –zuzenean edo legeek aitortutako antolakunde eta elkarteen bitartez– administrazio-egintzak ematen diren prozeduran.

CAPÍTULO V
Finalización del procedimiento

V. KAPITULUA
Prozedura amaitzea

Sección 1.ª Disposiciones generales

1. atala Xedapen orokorrak

Artículo 84. Terminación.

84. artikulua. Amaiera.

1. Pondrán fin al procedimiento la resolución, el desistimiento, la renuncia al derecho en que se funde la solicitud, cuando tal renuncia no esté prohibida por el ordenamiento jurídico, y la declaración de caducidad.

2. También producirá la terminación del procedimiento la imposibilidad material de continuarlo por causas sobrevenidas.

La resolución que se dicte deberá ser motivada en todo caso.

Artículo 85. Terminación en los procedimientos sancionadores.

1. Iniciado un procedimiento sancionador, si el infractor reconoce su responsabilidad, se podrá resolver el procedimiento con la imposición de la sanción que proceda.

2. Cuando la sanción tenga únicamente carácter pecuniario o bien quepa imponer una sanción pecuniaria y otra de carácter no pecuniario pero se ha justificado la improcedencia de la segunda, el pago voluntario por el presunto responsable, en cualquier momento anterior a la resolución, implicará la terminación del procedimiento, salvo en lo relativo a la reposición de la situación alterada o a la determinación de la indemnización por los daños y perjuicios causados por la comisión de la infracción.

3. En ambos casos, cuando la sanción tenga únicamente carácter pecuniario, el órgano competente para resolver el procedimiento aplicará reducciones de, al menos, el 20 % sobre el importe de la sanción propuesta, siendo éstos acumulables entre sí.

Las citadas reducciones, deberán estar determinadas en la notificación de iniciación del procedimiento y su efectividad estará condicionada al desistimiento o renuncia de cualquier acción o recurso en vía administrativa contra la sanción.

El porcentaje de reducción previsto en este apartado podrá ser incrementado reglamentariamente.

Artículo 86. Terminación convencional.

1. Las Administraciones Públicas podrán celebrar acuerdos, pactos, convenios o contratos con personas tanto de Derecho público como privado, siempre que no sean contrarios al ordenamiento jurídico ni versen sobre materias no susceptibles de transacción y tengan por objeto satisfacer el

1. Prozedura amaitzeko aukerak hauek dira: ebazpena, atzera egitea, eskaeraren oinarri den eskubideari uko egitea –ordenamendu juridikoak uko hori debekatzen ez badu– eta iraungitzat deklaratzea.

2. Prozedura amaitu egingo da, halaber, jarraitzea materialki ezinezkoa bada gerora sortutako arrazoiengatik.

Ematen den ebazpenak arrazoitua izan behar du beti.

85. artikulua. Zehapen-prozeduren amaiera.

1. Zehapen-prozedura bat hasitakoan, arau-hausleak bere erantzukizuna aitortzen badu, dagokion zehapena ezarriz ebatzi ahal izango da prozedura.

2. Zehapena diruzkoa soilik baldin bada, edo aukera baldin badago diruzko zehapen bat eta diruzkoa ez den beste bat ezartzeko baina bigarrena egokia ez dela justifikatu bada, ustezko erantzuleak ebazpena baino lehenagoko edozein unetan borondatez ordaintzeak amaitu egingo du prozedura, salbu eta aldatutako egoera lehengoratzeari dagokiona edo arau-hausteagatik sortutako kalte-galeren ordaina erabakitzeari dagokiona.

3. Bi kasuetan, zehapena diruzkoa soilik denean, prozedura ebazteko eskumena duen organoak murriztapenak aplikatuko ditu, gutxienez % 20koak, proposatutako zehapenaren gainean, eta murriztapenak elkarrekin bateratu daitezke.

Murriztapen horiek zehaztuta egon behar dute prozeduraren hasierako jakinarazpenean. Haietaz baliatzeko, bestalde, zehapenaren aurka administrazio-bidean jarritako akzio edo errekurtsoetan atzera edo uko egin beharra dago.

Zenbaki honetan aurreikusitako murriztapen-ehunekoa handitu ahal izango da erregelamenduz.

86. artikulua. Amaiera itundua.

1. Administrazio publikoek akordioak, itunak, hitzarmenak eta kontratuak egin ditzakete zuzenbide publikoko zein pribatuko pertsonekin, baldin eta ordenamendu juridikoaren aurkakoak ez badira, transakziorik onartzen ez duten kontuen gainekoak ez badira, eta babestu behar duten

interés público que tienen encomendado, con el alcance, efectos y régimen jurídico específico que, en su caso, prevea la disposición que lo regule, pudiendo tales actos tener la consideración de finalizadores de los procedimientos administrativos o insertarse en los mismos con carácter previo, vinculante o no, a la resolución que les ponga fin.

2. Los citados instrumentos deberán establecer como contenido mínimo la identificación de las partes intervinientes, el ámbito personal, funcional y territorial, y el plazo de vigencia, debiendo publicarse o no según su naturaleza y las personas a las que estuvieran destinados.

3. Requerirán en todo caso la aprobación expresa del Consejo de Ministros u órgano equivalente de las Comunidades Autónomas, los acuerdos que versen sobre materias de la competencia directa de dicho órgano.

4. Los acuerdos que se suscriban no supondrán alteración de las competencias atribuidas a los órganos administrativos, ni de las responsabilidades que correspondan a las autoridades y funcionarios, relativas al funcionamiento de los servicios públicos.

5. En los casos de procedimientos de responsabilidad patrimonial, el acuerdo alcanzado entre las partes deberá fijar la cuantía y modo de indemnización de acuerdo con los criterios que para calcularla y abonarla establece el artículo 34 de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público.

Sección 2.ª Resolución

Artículo 87. Actuaciones complementarias.

Antes de dictar resolución, el órgano competente para resolver podrá decidir, mediante acuerdo motivado, la realización de las actuaciones complementarias indispensables para resolver el procedimiento.

No tendrán la consideración de actuaciones complementarias los informes que preceden inmediatamente a la resolución final del procedimiento.

El acuerdo de realización de actuaciones complementarias se notificará a los interesados, concediéndoseles un plazo de siete días para formular las alegaciones que tengan por pertinentes tras la finalización de las mismas.

interes publikoari erantzutea badute xede; betiere, kontuan izango dituzte prozedura arautzen duen xedapenean ezarritako irismena, ondorioak eta araubide juridiko espezifikoa. Egintza horiek administrazio-prozedura amaitzen dutela jo daiteke edo, bestela, prozeduran sar daitezke, prozedura amaitzen duen ebazpena baino lehen, lotesle gisa edo ez.

2. Dokumentu horietan adierazi behar dira, gutxienez: parte hartzen duten alderdiak zein diren, eremu pertsonala, eremu funtzionala eta lurralde-eremua, eta indarraldia. Argitaratu behar diren edo ez, izaeraren eta helburuko pertsonen arabera erabakiko da.

3. Onespen espresua eman beharko die Ministro Kontseiluak, edo autonomia-erkidegoetako organo baliokide batek, bere eskumen zuzeneko gaiei buruzko akordioak diren kasuetan.

4. Egiten diren akordioek ez dituzte aldatuko, ez administrazio-organoek esleituak dituzten eskumenak, ez agintari eta funtzionarioek zerbitzu publikoen funtzionamenduan dituzten erantzukizunak.

5. Ondare-erantzukizuneko prozeduren kasuan, aldeen arteko akordioak kalte-ordainaren zenbatekoa eta modua zehaztu behar du, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 34. artikuluak hura kalkulatzeko eta ordaintzeko ezartzen dituen irizpideen arabera.

2. atala Ebazpena

87. artikulua. Jarduketa osagarriak.

Ebazpena eman aurretik, ebazteko eskumena duen organoak, erabaki arrazoitu baten bidez, erabaki dezake prozedura ebazteko ezinbestekoak diren jarduketa osagarriak egitea.

Ez dira jarduketa osagarritzat hartuko prozeduraren azken ebazpena eman aurre-aurreko txostenak.

Jarduketa osagarriak egiteko erabakia interesdunei jakinaraziko zaie, eta amaitu ondorengo zazpi egun izango dituzte haiek egoki deritzoten alegazioak aurkezteko.

Las actuaciones complementarias deberán practicarse en un plazo no superior a quince días.

El plazo para resolver el procedimiento quedará suspendido hasta la terminación de las actuaciones complementarias.

Jarduketa osagarriak gehienez ere hamabost eguneko epe batean egin beharko dira.

Prozedura ebazteko epea etengo da jarduketa osagarriak amaitu bitartean.

Artículo 88. Contenido.

1. La resolución que ponga fin al procedimiento decidirá todas las cuestiones planteadas por los interesados y aquellas otras derivadas del mismo.

Cuando se trate de cuestiones conexas que no hubieran sido planteadas por los interesados, el órgano competente podrá pronunciarse sobre las mismas, poniéndolo antes de manifiesto a aquéllos por un plazo no superior a quince días, para que formulen las alegaciones que estimen pertinentes y aporten, en su caso, los medios de prueba.

2. En los procedimientos tramitados a solicitud del interesado, la resolución será congruente con las peticiones formuladas por éste, sin que en ningún caso pueda agravar su situación inicial y sin perjuicio de la potestad de la Administración de incoar de oficio un nuevo procedimiento, si procede.

3. Las resoluciones contendrán la decisión, que será motivada en los casos a que se refiere el artículo 35.

Expresarán, además, los recursos que contra la misma procedan, órgano administrativo o judicial ante el que hubieran de presentarse y plazo para interponerlos, sin perjuicio de que los interesados puedan ejercitar cualquier otro que estimen oportuno.

4. Sin perjuicio de la forma y lugar señalados por el interesado para la práctica de las notificaciones, la resolución del procedimiento se dictará electrónicamente y garantizará la identidad del órgano competente, así como la autenticidad e integridad del documento que se formalice mediante el empleo de alguno de los instrumentos previstos en esta Ley.

5. En ningún caso podrá la Administración abstenerse de resolver so pretexto de silencio, oscuridad o insuficiencia de los preceptos legales aplicables al caso, aunque podrá acordarse la inadmisión de las solicitudes de reconocimiento de derechos no previstos en el ordenamiento jurídico o manifiestamente carentes de fundamento, sin perjuicio del derecho de petición previsto por el artículo 29 de la Constitución.

88. artikulua. Edukia.

1. Prozedura amaitzen duen ebazpenean erabakiko dira, bai interesdunek planteatutako gai guztiak, bai prozeduratik eratorritakoak.

Lotura duten baina interesdunek planteatu ez dituzten gaiak agertzen baldin badira, organo eskudunak erabaki dezake haiei buruz, aurrez interesdunei adierazirik, gehienez ere hamabost eguneko epe batean, nahi dituzten alegazioak egin eta, hala badagokio, frogabideak aurkez ditzaten.

2. Interesdunak eskaturik izapidetutako prozeduretan, hark eskatutakoarekin kongruentea izango da ebazpena, eta ezein kasutan ezin izango du interesdunaren hasierako egoera okerragotu, hargatik eragotzi gabe Administrazioak ofizioz beste prozedura bat hasteko ahala izatea, hala badagokio.

3. Ebazpenean, erabakia jaso behar da, eta erabaki arrazoitua izan behar du 35. artikuluan aipatutako kasuetan.

Horrez gain, ebazpenetan jaso behar da zer errekurtso aurkeztu daitezkeen haien aurka, zer administrazio-organori edo organo judiziali aurkeztu behar zaizkion eta zer epetan, hargatik eragotzi gabe interesdunek egoki iritzitako beste errekurtsoren bat aurkezteko aukera.

4. Interesdunak jakinarazpenetarako adierazitako modua eta lekua gorabehera, prozeduraren ebazpena elektronikoki emango da; organo eskudunaren identitatea bermatuko du ebazpenak, eta orobat bermatuko du autentikoa eta osoa dela dokumentua, lege honetan aurreikusitako tresnetakoren bat erabiliz formalizatua.

5. Administrazioa inoiz ezin da ebazpena eman gabe gelditu, aitzakiatzat harturik kasuan aplikatzekoak diren lege-manuen hutsunea, iluntasuna edo murriztasuna. Hala ere, Administrazioak erabaki dezake ez onartzea eskubideak aitortzeko eskaerak, eskubide horiek ez badaude aurreikusita ordenamendu juridikoan edo oinarria falta bazaie nabarmen, hargatik

eragotzi gabe Konstituzioaren 29. artikuluan jasotako eske-eskubidea.

6. La aceptación de informes o dictámenes servirá de motivación a la resolución cuando se incorporen al texto de la misma.

6. Txosten edo irizpenak onartzeak ebazpena arrazoitzeko balioko du haren testuari gehitzen zaizkionean.

7. Cuando la competencia para instruir y resolver un procedimiento no recaiga en un mismo órgano, será necesario que el instructor eleve al órgano competente para resolver una propuesta de resolución.

7. Prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena eta ebazpena ematekoa ez direnean organo berarenak, ebazpen-proposamen bat bidali beharko dio instrukzio-egileak ebazteko eskumena duen organoari.

En los procedimientos de carácter sancionador, la propuesta de resolución deberá ser notificada a los interesados en los términos previstos en el artículo siguiente.

Zehapen-prozeduretan, ondorengo artikuluan aurreikusitako moduan jakinarazi beharko zaie ebazpen-proposamena interesdunei.

Artículo 89. Propuesta de resolución en los procedimientos de carácter sancionador.

89. artikulua. Ebazpen-proposamena zehapen-prozeduretan.

1. El órgano instructor resolverá la finalización del procedimiento, con archivo de las actuaciones, sin que sea necesaria la formulación de la propuesta de resolución, cuando en la instrucción procedimiento se ponga de manifiesto que concurre alguna de las siguientes circunstancias:

1. Instrukzio-organoak prozedura amaitzea eta jarduketak artxibatzea ebatziko du, ebazpen-proposamena formulatu beharrik gabe, prozeduraren instrukzioan agerian jartzen denean honako inguruabar hauetakoren bat gertatzen dela:

a) La inexistencia de los hechos que pudieran constituir la infracción.

a) Arau-hauste izan litekeen egitaterik ez egotea.

b) Cuando los hechos no resulten acreditados.

b) Egitateak ez egiaztaturik gelditzea.

c) Cuando los hechos probados no constituyan, de modo manifiesto, infracción administrativa.

c) Frogatutako egitateak arau-hauste administratiboak ez izatea, modu agerikoan.

d) Cuando no exista o no se haya podido identificar a la persona o personas responsables o bien aparezcan exentos de responsabilidad.

d) Erantzule den pertsonarik ez izatea, edo ezin identifikatu izatea, edo erantzukizunik ez dutela agertzea.

e) Cuando se concluyera, en cualquier momento, que ha prescrito la infracción.

e) Arau-hausteak preskribatu duela ondorioztatzea, edozein unetan.

2. En el caso de procedimientos de carácter sancionador, una vez concluida la instrucción del procedimiento, el órgano instructor formulará una propuesta de resolución que deberá ser notificada a los interesados.

2. Zehapen-prozeduretan, prozeduraren instrukzioa amaitutakoan, instrukzio-organoak ebazpen-proposamen bat egingo du, eta interesdunei jakinarazi beharko zaie.

La propuesta de resolución deberá indicar la puesta de manifiesto del procedimiento y el plazo para formular alegaciones y presentar los documentos e informaciones que se estimen pertinentes.

Ebazpen-proposamenean, adierazi beharko da prozedura agerian jarri dela eta zer epe dagoen alegazioak egiteko eta egoki iritzitako dokumentuak eta informazioak aurkezteko.

3. En la propuesta de resolución se fijarán de forma motivada los hechos que se consideren

3. Ebazpen-proposamenean adieraziko da, modu arrazoituan, zer egitate ematen diren frogatutzat

probados y su exacta calificación jurídica, se determinará la infracción que, en su caso, aquéllos constituyan, la persona o personas responsables y la sanción que se proponga, la valoración de las pruebas practicadas, en especial aquellas que constituyan los fundamentos básicos de la decisión, así como las medidas provisionales que, en su caso, se hubieran adoptado.

eta zer kalifikazio juridiko duten zehazki; zehaztuko da zer arau-hauste diren, hala badira; nor den edo diren erantzuleak eta zer zehapen proposatzen den; zein den egindako frogen balioespena, batez ere erabakiaren funtsezko oinarriak diren frogena, eta behin-behineko zer neurri hartu den, halakorik hartu bada.

Cuando la instrucción concluya la inexistencia de infracción o responsabilidad y no se haga uso de la facultad prevista en el apartado primero, la propuesta declarará esa circunstancia.

Instrukziotik ondorioztatzen bada ez dagoela arau-hausterik edo erantzukizunik, eta ez bada baliatzen lehenengo apartatuan aurreikusitako ahalmena, hala jasoko da proposamenean.

Artículo 90. Especialidades de la resolución en los procedimientos sancionadores.

90. artikulua. Berezitasunak zehapen-prozeduren ebazpenean.

1. En el caso de procedimientos de carácter sancionador, además del contenido previsto en los dos artículos anteriores, la resolución incluirá la valoración de las pruebas practicadas, en especial aquellas que constituyan los fundamentos básicos de la decisión, fijarán los hechos y, en su caso, la persona o personas responsables, la infracción o infracciones cometidas y la sanción o sanciones que se imponen, o bien la declaración de no existencia de infracción o responsabilidad.

1. Zehapen-prozeduretan, aurreko bi artikuluetan aurreikusitako edukiaz gain, egindako frogen balioespena sartuko da ebazpenean, batez ere erabakiaren funtsezko oinarri diren frogena; zehaztuko da zer egitate diren eta, hala badagokio, nor den erantzulea, zer arau-hauste egin den eta zer zehapen ezartzen den, edo, bestela, arau-hausterik edo erantzukizunik ez dagoelako adierazpena.

2. En la resolución no se podrán aceptar hechos distintos de los determinados en el curso del procedimiento, con independencia de su diferente valoración jurídica.

2. Ebazpenean ezin da onartu prozeduran erabakitakoez bestelako egitaterik, haien balioespen juridiko desberdina gorabehera.

No obstante, cuando el órgano competente para resolver considere que la infracción o la sanción revisten mayor gravedad que la determinada en la propuesta de resolución, se notificará al inculpado para que aporte cuantas alegaciones estime convenientes en el plazo de quince días.

Hala ere, ebazteko eskumena duen organoak uste badu arau-haustea edo zehapena astunagoa dela ebazpen-proposamenean erabaki dena baino, erruztatuari jakinaraziko zaio hori, egoki deritzon alegazioak aurkez ditzan hamabost eguneko epean.

3. La resolución que ponga fin al procedimiento será ejecutiva cuando no quepa contra ella ningún recurso ordinario en vía administrativa, pudiendo adoptarse en la misma las disposiciones cautelares precisas para garantizar su eficacia en tanto no sea ejecutiva y que podrán consistir en el mantenimiento de las medidas provisionales que en su caso se hubieran adoptado.

3. Prozedura amaitzen duen ebazpena betearaztekoa izango da, haren kontrako administrazio-bideko ezein errekurtso arrunt jartzerik ez dagoenean, eta kautela-neurriak har daitezke, hartara, betearaztekoa ez den bitartean haren efikazia bermatzeko; kautela-neurria izan daiteke behin-behineko neurriei eustea, halakorik hartu denean.

Cuando la resolución sea ejecutiva, se podrá suspender cautelarmente, si el interesado manifiesta a la Administración su intención de interponer recurso contencioso-administrativo contra la resolución firme en vía administrativa.

Ebazpena, betearaztekoa denean, kautelaz eten daiteke interesdunak Administrazioari adierazten badio asmoa duela administrazio-bidean irmoa den ebazpenari administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko.

Dicha suspensión cautelar finalizará cuando:

Kautelazko etete hori amaituko da:

a) Haya transcurrido el plazo legalmente previsto sin que el interesado haya interpuesto recurso contencioso-administrativo.

b) Habiendo el interesado interpuesto recurso contencioso-administrativo:

1.º No se haya solicitado en el mismo trámite la suspensión cautelar de la resolución impugnada.

2.º El órgano judicial se pronuncie sobre la suspensión cautelar solicitada, en los términos previstos en ella.

4. Cuando las conductas sancionadas hubieran causado daños o perjuicios a las Administraciones y la cuantía destinada a indemnizar estos daños no hubiera quedado determinada en el expediente, se fijará mediante un procedimiento complementario, cuya resolución será inmediatamente ejecutiva.

Este procedimiento será susceptible de terminación convencional, pero ni ésta ni la aceptación por el infractor de la resolución que pudiera recaer implicarán el reconocimiento voluntario de su responsabilidad.

La resolución del procedimiento pondrá fin a la vía administrativa.

Artículo 91. Especialidades de la resolución en los procedimientos en materia de responsabilidad patrimonial.

1. Una vez recibido, en su caso, el dictamen al que se refiere el artículo 81.2 o, cuando éste no sea preceptivo, una vez finalizado el trámite de audiencia, el órgano competente resolverá o someterá la propuesta de acuerdo para su formalización por el interesado y por el órgano administrativo competente para suscribirlo.

Cuando no se estimase procedente formalizar la propuesta de terminación convencional, el órgano competente resolverá en los términos previstos en el apartado siguiente.

2. Además de lo previsto en el artículo 88, en los casos de procedimientos de responsabilidad patrimonial, será necesario que la resolución se pronuncie sobre la existencia o no de la relación de causalidad entre el funcionamiento del servicio público y la lesión producida y, en su caso, sobre la valoración del daño causado, la cuantía y el modo de la indemnización, cuando proceda, de acuerdo con los criterios que para calcularla y

a) Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko legez aurreikusitako epea amaitu denean interesdunak halakorik jarri gabe.

b) Interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri badu:

1) Izapide berean eskatu ez denean aurkaratutako ebazpena kautelaz etetea.

2) Organo judizialak irizpena ematen duenean eskatutako kautelazko eteteaz, hartan aurreikusitako moduan.

4. Zehatutako jokaerek kalteak edo galerak eragin badizkiete administrazioei eta kalte horiek ordaintzera bideratutako diru-kopurua ez bada espedientean zehaztu, prozedura osagarri baten bitartez erabakiko da diru-kopuru hori, eta prozedura horretako ebazpena berehala betearaztekoa izango da.

Prozedura hori modu itunduan amaitu daiteke, baina ez itunak ez arau-hausleak ebazpena onartzeak ez dakarte borondatez bere erantzukizuna aitortzea.

Prozeduraren ebazpenak amaitu egingo du administrazio-bidea.

91. artikulua. Berezitasunak ondare-erantzukizuneko prozedurak ebaztean.

1. Behin 81.2 artikuluak aipatzen duen irizpena jasotakoan, edo, irizpen hori nahitaezkoa ez denean, entzunaldiaren izapidea amaitutakoan, organo eskudunak ebazpena emango du, edo erabaki-proposamena formalizatu dezaten igorriko die interesdunari eta sinatzeko eskumena duen administrazioari.

Ez bada egokitzat jotzen hitzarmen bidez amaitzeko proposamena formalizatzea, hurrengo apartatuan aurreikusitako moduan ebatziko du organo eskudunak.

2. 88. artikuluan aurreikusitakoaz gainera, ondare-erantzukizuneko prozeduren kasuan, ebazpenak adierazi beharra dauka kausalitate-loturarik baden edo ez den zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta eragindako kaltearen artean, eta, hala badagokio, balioespena egin behar du sortutako kalteaz, kalte-ordainaren zenbatekoaz eta ordaintzeko moduaz, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko

abonarla se establecen en el artículo 34 de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público.

3. Transcurridos seis meses desde que se inició el procedimiento sin que haya recaído y se notifique resolución expresa o, en su caso, se haya formalizado el acuerdo, podrá entenderse que la resolución es contraria a la indemnización del particular.

Artículo 92. Competencia para la resolución de los procedimientos de responsabilidad patrimonial.

En el ámbito de la Administración General del Estado, los procedimientos de responsabilidad patrimonial se resolverán por el Ministro respectivo o por el Consejo de Ministros en los casos del artículo 32.3 de la Ley de Régimen Jurídico del Sector Público o cuando una ley así lo disponga.

En el ámbito autonómico y local, los procedimientos de responsabilidad patrimonial se resolverán por los órganos correspondientes de las Comunidades Autónomas o de las Entidades que integran la Administración Local.

En el caso de las Entidades de Derecho Público, las normas que determinen su régimen jurídico podrán establecer los órganos a quien corresponde la resolución de los procedimientos de responsabilidad patrimonial.

En su defecto, se aplicarán las normas previstas en este artículo.

Sección 3.ª Desistimiento y renuncia

Artículo 93. Desistimiento por la Administración.

En los procedimientos iniciados de oficio, la Administración podrá desistir, motivadamente, en los supuestos y con los requisitos previstos en las Leyes.

Artículo 94. Desistimiento y renuncia por los interesados.

1. Todo interesado podrá desistir de su solicitud o, cuando ello no esté prohibido por el ordenamiento jurídico, renunciar a sus derechos.

2. Si el escrito de iniciación se hubiera formulado por dos o más interesados, el desistimiento o la renuncia sólo afectará a aquellos que la hubiesen formulado.

Legearen 34. artikuluan hura kalkulatzeko eta ordaintzeko ezartzen diren irizpideen arabera.

3. Prozedura hasi eta sei hilabeteren buruan ebazpen espresurik eman eta jakinarazi ez bada, edo erabakia formalizatu ez bada, ebazpena partikularrari kalte-ordaina ematearen aurkakoa dela jo daiteke.

92. artikulua. Ondare-erantzukizuneko prozedurak ebazteko eskumena.

Estatuaren Administrazio Orokorraren eremuan, dagokion ministroak edo Ministro Kontseiluak ebatziko ditu ondare-erantzukizuneko prozedurak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen 32.3 artikuluak adierazitako kasuetan edo lege batek hala xedatzen duenean.

Autonomia-erkidegoen eta toki-administrazioaren eremuan, autonomia-erkidegoetako edo toki-administrazioa osatzen duten entitateetako dagokien organoek ebatziko dituzte ondare-erantzukizuneko prozedurak.

Zuzenbide publikoko entitateen kasuan, haien araubide juridikoa erabakitzen duten arauek ezar dezakete nori dagokion ondare-erantzukizuneko prozedurak ebaztea.

Bestela, artikulu honetan aurreikusitako arauak aplikatuko dira.

3. atala Atzera egitea eta uko egitea

93. artikulua. Administrazioak atzera egitea.

Ofizioz hasitako prozeduretan, Administrazioak atzera egin ahal izango du, arrazoiturik, legeetan aurreikusitako kasuetan eta aurreikusitako betekizunekin.

94. artikulua. Interesdunek atzera egitea eta uko egitea.

1. Interesdun orok atzera egin dezake bere eskaeran, edo, ordenamendu juridikoan debekatuta ez badago, uko egin diezaieke bere eskubideei.

2. Hasierako idazkia interesdun bik edo gehiagok aurkeztua denean, norbaitek atzera egiteak edo uko egiteak hari bakarrik eragingo dio.

3. Tanto el desistimiento como la renuncia podrán hacerse por cualquier medio que permita su constancia, siempre que incorpore las firmas que correspondan de acuerdo con lo previsto en la normativa aplicable.

4. La Administración aceptará de plano el desistimiento o la renuncia, y declarará concluso el procedimiento salvo que, habiéndose personado en el mismo terceros interesados, instasen éstos su continuación en el plazo de diez días desde que fueron notificados del desistimiento o renuncia.

5. Si la cuestión suscitada por la incoación del procedimiento entrañase interés general o fuera conveniente sustanciarla para su definición y esclarecimiento, la Administración podrá limitar los efectos del desistimiento o la renuncia al interesado y seguirá el procedimiento.

Sección 4.ª Caducidad

Artículo 95. Requisitos y efectos.

1. En los procedimientos iniciados a solicitud del interesado, cuando se produzca su paralización por causa imputable al mismo, la Administración le advertirá que, transcurridos tres meses, se producirá la caducidad del procedimiento.

Consumido este plazo sin que el particular requerido realice las actividades necesarias para reanudar la tramitación, la Administración acordará el archivo de las actuaciones, notificándoselo al interesado.

Contra la resolución que declare la caducidad procederán los recursos pertinentes.

2. No podrá acordarse la caducidad por la simple inactividad del interesado en la cumplimentación de trámites, siempre que no sean indispensables para dictar resolución.

Dicha inactividad no tendrá otro efecto que la pérdida de su derecho al referido trámite.

3. La caducidad no producirá por sí sola la prescripción de las acciones del particular o de la Administración, pero los procedimientos caducados no interrumpirán el plazo de prescripción.

En los casos en los que sea posible la iniciación de un nuevo procedimiento por no haberse producido la prescripción, podrán incorporarse a

3. Bai atzera egitea, bai uko egitea, gauzatu daitezke jasota geratzeko edozein bitartekoren bidez, baldin eta aplikatzekoa den araudian aurreikusitakoaren arabera behar diren sinadurak badituzte.

4. Administrazioak bere horretan onartuko du atzera egitea edo uko egitea, eta amaitutzat emango du prozedura, non eta, prozeduran hirugarren interesdun batzuk pertsonatuta egonik, haiek ez duten eskatzen prozedurak jarraitzeko, atzera egitearen edo uko egitearen berri eman ondorengo hamar egunen barruan.

5. Prozedura hasteko gaia interes orokorrekoa bada edo gai hori mugatzeko eta argitzeko komeni bada hura bideratzea, Administrazioak erabaki dezake interesdunari baino ez eragitea atzera egiteak edo uko egiteak, eta aurrera jarraitzea prozedurak.

4. atala Iraungitzea.

95. artikulua. Betekizunak eta ondorioak.

1. Prozedura interesdunak eskaturik hasia denean, hari egotz dakiokeen arrazoiren bategatik gelditzen bada, Administrazioak adieraziko dio prozedura iraungi egingo dela hiru hilabete igarotakoan.

Hiru hilabeteok igaro eta partikularrak ez badu egin prozedura ostera izapidetzeko egin beharrekorik, ordura arte egindakoa artxibatzea erabakiko du Administrazioak, eta horren berri emango dio interesdunari.

Prozedura iraungitzat deklaratzen duen ebazpenaren aurka, dagozkion errekurtsoak aurkez daitezke.

2. Ezin izango da iraungitzea erabaki interesdunak jarduterik-ez hutsa badu izapideak betetzeari dagokionez, izapide horiek ebazpena emateko ezinbestekoak ez badira behintzat.

Jarduterik ez horren ondorio bakarra izapide horretarako eskubidea galtzea izango da.

3. Prozedura iraungitzeak ez du berez ekarriko partikularraren edo Administrazioaren akzioen preskripzioa, baina prozedura iraungiek ez dute preskripzio-epea etengo.

Preskripzioa gertatu ez delako beste prozedura bat hasteko aukera ematen duten kasuetan, prozedura horri gehitu ahal izango zaizkio

éste los actos y trámites cuyo contenido se hubiera mantenido igual de no haberse producido la caducidad.

En todo caso, en el nuevo procedimiento deberán cumplimentarse los trámites de alegaciones, proposición de prueba y audiencia al interesado.

4. Podrá no ser aplicable la caducidad en el supuesto de que la cuestión suscitada afecte al interés general, o fuera conveniente sustanciarla para su definición y esclarecimiento.

iraungitzea gertatu ezean edukia berdin mantenduko zuten egintza eta izapideak.

Prozedura berrian, nolanahi ere, nahitaez bete beharreko izapideak izango dira alegazioak, froga-proposamena eta interesdunari entzunaldia ematea.

4. Gerta daiteke iraungitzea aplikagarria ez izatea, sortutako gaiak interes orokorrari eragiten badio edo edo gai hori mugatzeko eta argitzeko komeni bada hura bideratzea.

CAPÍTULO VI
De la tramitación simplificada del procedimiento administrativo común

VI. KAPITULUA
Administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatua

Artículo 96. Tramitación simplificada del procedimiento administrativo común.

1. Cuando razones de interés público o la falta de complejidad del procedimiento así lo aconsejen, las Administraciones Públicas podrán acordar, de oficio o a solicitud del interesado, la tramitación simplificada del procedimiento.

En cualquier momento del procedimiento anterior a su resolución, el órgano competente para su tramitación podrá acordar continuar con arreglo a la tramitación ordinaria.

2. Cuando la Administración acuerde de oficio la tramitación simplificada del procedimiento deberá notificarlo a los interesados.

Si alguno de ellos manifestara su oposición expresa, la Administración deberá seguir la tramitación ordinaria.

3. Los interesados podrán solicitar la tramitación simplificada del procedimiento.

Si el órgano competente para la tramitación aprecia que no concurre alguna de las razones previstas en el apartado 1, podrá desestimar dicha solicitud, en el plazo de cinco días desde su presentación, sin que exista posibilidad de recurso por parte del interesado.

Transcurrido el mencionado plazo de cinco días se entenderá desestimada la solicitud.

4. En el caso de procedimientos en materia de responsabilidad patrimonial de las Administraciones Públicas, si una vez iniciado el procedimiento administrativo el órgano competente para su tramitación considera inequívoca la relación de causalidad entre el

96. artikulua. Administrazio-prozedura erkidearen izapidetze sinplifikatua.

1. Interes publikoa tartean badago edo prozedura ez bada konplexua, modu sinplifikatuan izapidetzea erabaki dezakete administrazio publikoek, ofizioz edo interesdunak eskaturik.

Prozedura ebatzi aurreko edozein unetan, izapidetze arruntaren arabera jarraitzea erabaki ahal izango du izapidetzeko eskumena duen organoak.

2. Prozedura modu sinplifikatuan izapidetzea erabakitzen badu Administrazioak ofizioz, hala jakinarazi beharko die interesdunei.

Haietakoren bat kontra agertzen bada espresuki, izapidetze arruntari jarraitu beharko dio Administrazioak.

3. Interesdunek eska dezakete prozedura modu sinplifikatuan izapidetzeko.

Izapidetzeko eskumena duen organoak ikusten badu ez dela gertatzen 1. apartatuan aurreikusitako arrazoietakoren bat, ezetsi ahal izango du eskaera, aurkeztu ondorengo bost eguneko epean, interesdunak errekurtsorik jartzeko aukerarik gabe.

Bost eguneko epea amaitutakoan, ezetsitzat joko da eskaera.

4. Administrazio publikoen ondare-erantzukizuneko prozeduretan, administrazio-prozedura hasitakoan hura izapidetzeko eskumena duen organoak irizten badio zalantzarik gabea dela zerbitzu publikoaren funtzionamenduaren eta kaltearen arteko

funcionamiento del servicio público y la lesión, así como la valoración del daño y el cálculo de la cuantía de la indemnización, podrá acordar de oficio la suspensión del procedimiento general y la iniciación de un procedimiento simplificado.

kausalitate-lotura, eta zalantzarik gabea orobat kaltearen balioespena eta kalte-ordainaren kalkulua, ofizioz erabaki ahal izango du prozedura orokorra etetea eta prozedura sinplifikatua hastea.

5. En el caso de procedimientos de naturaleza sancionadora, se podrá adoptar la tramitación simplificada del procedimiento cuando el órgano competente para iniciar el procedimiento considere que, de acuerdo con lo previsto en su normativa reguladora, existen elementos de juicio suficientes para calificar la infracción como leve, sin que quepa la oposición expresa por parte del interesado prevista en el apartado 2.

5. Zehapen-prozeduren kasuan, prozeduraren izapidetze sinplifikatua hautatu ahal izango da, prozedura hasteko eskumena duen organoak irizten badio ezen, hura erregulatzen duen araudiaren arabera, irizpen-elementu nahikoa dagoela arau-haustea arintzat jotzeko; ez da aukerarik izango interesdunak 2. apartatuan aurreikusitako aurkakotasun espresua adierazteko.

6. Salvo que reste menos para su tramitación ordinaria, los procedimientos administrativos tramitados de manera simplificada deberán ser resueltos en treinta días, a contar desde el siguiente al que se notifique al interesado el acuerdo de tramitación simplificada del procedimiento, y constarán únicamente de los siguientes trámites:

6. Izapidetze arrunterako denbora gutxiago geratzen ez bada behintzat, modu sinplifikatuan izapidetutako prozedurak hogeita hamar eguneko epean ebatzi beharko dira, prozedura modu sinplifikatuan izapidetzeko erabakia interesdunari jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbaturik, eta izapide hauek bakarrik egingo dira haietan:

a) Inicio del procedimiento de oficio o a solicitud del interesado.

a) Prozedura hastea, ofizioz edo interesdunak eskaturik.

b) Subsanación de la solicitud presentada, en su caso.

b) Aurkeztutako eskaera zuzentzea, hala badagokio.

c) Alegaciones formuladas al inicio del procedimiento durante el plazo de cinco días.

c) Prozeduraren hasierari bost eguneko epean aurkeztutako alegazioak.

d) Trámite de audiencia, únicamente cuando la resolución vaya a ser desfavorable para el interesado.

d) Entzunaldiaren izapidea, ebazpenak interesdunaren kontrakoa izan behar duen kasuan bakarrik.

e) Informe del servicio jurídico, cuando éste sea preceptivo.

e) Zerbitzu juridikoaren txostena, nahitaezkoa denean.

f) Informe del Consejo General del Poder Judicial, cuando éste sea preceptivo.

f) Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren txostena, nahitaezkoa denean.

g) Dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma en los casos en que sea preceptivo.

g) Estatu Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoko organo aholku-emaile baliokidearen irizpena, nahitaezkoa den kasuetan.

Desde que se solicite el Dictamen al Consejo de Estado, u órgano equivalente, hasta que éste sea emitido, se producirá la suspensión automática del plazo para resolver.

Irizpena Estatu Kontseiluari edo organo baliokideari eskatzen zaionetik ematen den arte, ebazteko epea etengo da automatikoki.

El órgano competente solicitará la emisión del Dictamen en un plazo tal que permita cumplir el plazo de resolución del procedimiento.

Prozedura ebazteko epea betetzeko moduko epe batean eskatuko du organo eskudunak irizpena eman dadila.

El Dictamen podrá ser emitido en el plazo de quince días si así lo solicita el órgano competente.

En todo caso, en el expediente que se remita al Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente, se incluirá una propuesta de resolución.

Cuando el Dictamen sea contrario al fondo de la propuesta de resolución, con independencia de que se atienda o no este criterio, el órgano competente para resolver acordará continuar el procedimiento con arreglo a la tramitación ordinaria, lo que se notificará a los interesados.

